

## **AZTERKETA ARIKETAK**

### **ENPRESAREN EKONOMIA: SARRERA**

#### **PREZIO ARIKETA**

Zigarre, zigarro elektronikoak saltzen hastea pentsatzen ari den enpresa da. Zigarrerren jabeak kostuak estali nahi ditu zigarroen salmentaren bidez eta mozkinak sortu kontsumigarrien (berriz kargatu ezin daitezkeen kartutxoak, aukerazko zapoak, dosi eta lurrin desberdinetan) salmenta dela medio. Kontsumigarri bakoitzaren fabrikaziokostua unitate bakoitzeko 2 eurokoa da.

Zigarro elektronikoek zenbait zati dituzte (ahokoa, sentsorea, led argia, berriz betetzen den bateria...). Pieza guztien kostua zigarro elektroniko bakoitzeko 12 eurokoa da.

Horrez gain, enpresak hileroko hainbat gastu ditu, hala nola, zigarroak ekoizten eta biltegitzen diren lokalaren alokera, enpresan lan egiten duten bi pertsonen soldadak, materialaren alokairua eta beste batzuk. Guzti horiek 6.500 euroko kostua sortzen dute hileroko, eta demagun erdia eta erdia egozten diegula zigarroei eta kontsumigarriei.

- 1) Zein da zigarro elektronikoek jarri ahal dien gutxieneko prezioa? (0,2 puntu)
- 2) Zein da Zigarrek kontsumigarriei ezarri beharreko prezioa, lehenengo hilabetean 16.000 kontsumigarri saltzeko aurreikuspena egin badu eta salmenta-prezioaren gaineko % 50eko marjina lortu nahi badu? (0,2 puntu)
- 3) Eta unitateko kostu osoen gaineko % 100eko marjina lortu nahi izanez gero? (0,2 puntu)
- 4) Zein izango litzateke lehen urteko puntu geldia edo lokagunea, b) galderan lortzen den helburu-prezioarentzako? (0,2 puntu)
- 5) Azkenik, 1.000 zigarro elektroniko salduko balitu a) galderako prezioan eta 16.000 kontsumigarri b)ko prezioan, zein emaitza bateratu lortuko luke enpresak lehen hilabete horretan? (0,2 puntu)

#### **PREZIO ARIKETA**

Kafetegi batek 100 kafe eguneko saldu ditzakeela kalkulatu du. Kafe bakoitzaren kostua 0.5€ da. Kafetei egozten zaion kafetegiko langilearen kostua, eguneko, 40€ da, eta beste gastu batzuen (zergak, alokera...) 20€ eguneko. Kafetearen kostua izan ezik, beste gastu guztiak finkoak dira.

- 1) Zein izan beharko litzateke kafearen prezioa unitate bakoitzeko kostu osoen gaineko %55-eko marjina lortzeko?
- 2) Zein izan beharko litzateke kafearen prezioa prezio honen gaineko %40-ko marjina lortzeko?
- 3) Zein litzateke prezio teknikoa?
- 4) Zein litzateke prezio minimoa?
- 5) Merkatu prezioa (beste kafetegi guztiek jartzen duten prezioa) 1.3€ bada, zenbat kafe saldu beharko litzateke prezio horretan dirurik ez galtzeko?

## INBERTSIO ARIKETA

Iberre E.A.k enpresetarako opariak prestatzen ditu. Bere lehiakortasuna hobetzeko, Iberrek inbertsio proiektu bat aurrera eramatea erabaki du: QR kodea daramaten enbalaje birziklagarriak egiten dituen makina bat erostea.

Proiektu honi buruz enpresaren zuzendaritzak ondorengo datuak eta kalkuluak dauzka:

- Proiektua martxan hasi aurretik enpresak makina erosi eta ordaindu beharko du (4.500€). Lehenengo urtean % 20 amortizatuko da, bigarreanean % 40 eta hirugarreanean % 40. Proiektua bukatutakoan makinak ez du hondar baliorik izango.
- Makina maneiatzeko lanaldi erdiko langile bat kontratatuko du. Langile berri honi dagokion gastua 8.000€ urteko izango da.
- Erabili beharko dituen materialen kostua 0,5€ da enbalaje unitate bakoitzeko. Lehenengo urterako 10.000 enbalaje egin eta salduko ditu, 15.000 bigarrenerako eta 20.000 hirugarrenerako.
- QR kodedun enbalaje birziklagarri bakoitzaren prezioa 1€ izango da lehenengo urtean, eta 1,2€ bigarren eta hirugarren urteetan.
- Lehenengo urtean, soilik, komunikazio kanpaina bat egingo du, 2.500 € bere kostua izanik.
- Erabiliko duen kapitalaren kostua % 4,5 da eta zerga-tasa % 30.

Erantzun hurrengo galderak:

- 1) Balio Eguneratu Garbia (BEG) kalkulatu, eta baloratu irizpide honen arabera proiektua onargarria litzatekeen (0,4 puntu)
- 2) Kalkulatu zenbat denbora beharko duen inbertitutakoa berreskuratzeko. (0,2 puntu)
- 3) Kalkulatu Barne Errendimenduaren Tasa (BET) eta baloratu irizpide honen arabera proiektua onargarria litzatekeen. Erabili zure kalkuluetarako ondorengo deskontu tasak  $K1=5\%$  eta  $K2=7\%$  (0,4 puntu)

## INBERTSIO ARIKETA

Pertsonen diagnostikorako biotxipeneko ekoizpena dedikatzen den HEALTH, S.A. enpresa 2004 urtean sortu zen eta hasierako urteak errazak izan ez ziren arren, gaur egun bezero leial ugari eta emaitza bikainak ditu. Hori dela eta enpresak inbertsio proiektu berri bati ekitea erabaki du; proiektua gauzatzeko lortuko balitz enpresa hedatu egingo litzateke eta animalien diagnostikorako produktua merkaturatzea lortuko litzateke.

Inbertsio berri horrek 4 urteko iraupena izango luke eta 8.000.000 euroko hasierako inbertsioa eskatuko luke; inbertsio hori makineria berri baten eskuratzera zuzenduko litzateke, izan ere, enpresak jadanik baditu beharrezko ezaguerak eta softwarea. Makineriaren amortizazioa honela egingo litzateke: 1. urtean % 30, 2. urtean % 30, 3. Urtean % 20 eta 4. urtean % 20. Bizitza erabilgarriaren amaieran ez da espero makineria saltzeko posibilitatea izaterik.

Merkatu ikerketa osoa egin ostean eta kontuan izanik gizartean animalien babeserako zenbat eta kontzientziazio handiagoa dagoela, enpresak uste du biotxip berrien salmentak 20.000 unitate ingurukoak izango direla lehenengo urtean; hurrengo hiru urteetan kopuru hori % 10ean gehituko da urtero. Biotxip bakoitzaren batez besteko prezioa 150 euro da (proiektuaren bizitza erabilgarri guztian berdina).

Produktu berriaren xede den publikoa HEALTH, S.A. enpresaren ohiko bezeriagandik desberdina denez, hainbat komunikazio ekintza burutuko dira. Horretarako, lehenengo bi urteetan kanpaina koordinatuko lukeen publizista bat kontratatuko litzateke, bere urteroko kostua 20.000 euro izanik. Gainera, biotxipak ezartzeko urtero 100.000 euro kostako litzatekeen albaitari baten beharra egongo da.

Kapitalaren kostua % 10 da eta ogasun publikoaren zerga-tasa % 30.

Aurreko informazioan oinarrituta erantzun honako galdera hauek:

- 1) Balorazio metodo estatiko baten bidez kalkula ezazu hasierako inbertsioa berreskuratzen behar den denbora. Zein desabantaila ditu metodo honek?
- 2) Kalkulatu Balio Eguneratu Garbia eta esan proiektua onargarria den irizpide horren arabera.
- 3) Kalkulatu Barne Errendimendu Tasa eta esan proiektua onargarria den irizpide horren arabera. Kalkulua errazteko, erabili  $K = \% 15$  eta  $K = \% 20$ .

## INBERTSIO ARIKETA

Applikation S.M. (Sozietate Mugatua) enpresak mugikor-gailuentzako app berri baten merkaturatzean lan egin nahi du. Euren produktuak "Ikastolen Elkarte"ren partaide diren ikastetxe eta ikasleen familien arteko komunikazioaren hobekuntzara bideratu nahi dituzte.

Jarduerarekin hasteko enpresak 20.000€ balio dituzten baliabide teknologikoetan (ordenagailuak, softwarea, eta abar) inbertitu behar du. Inbertsio honek Eusko Jaurlaritzaren % 10eko dirulaguntza jasoko luke enpresaren jarduera hezkuntza-berrikuntzarekin harreman zuzena izateagatik. Enpresak inbertsio osoa 4 urtetan amortizatzeko asmoa du. Proiektuaren 4 urteak iragan ondoren, material informatikoa erabat hondatuta egongo da eta ez du inolako baliorik izango salmentari begira.

Enpresak merkatura aterako duen produktuaren doako bertsioa dago, baina bertsio osoaren prezioa 30€/deskarga izango da. Bezero bakoitzari apparen bertsio pertsonalizatua egingo zaio eta honek produktu bakoitzeko 15€tako kostua ekarriko du (ad-hoc diseinua eta erabilpen-lizentzia bereziak). Horrez gain, enpresak informatiko baten lan-kostua jasan beharko du (1.000€ hilero 12 ordainketetan; urtez urte % 10ean gehituko dira). Hornikuntza eta hastapen-gastuak 400€ hilero izango dira (proiektuak iraun bitartean aldaketarik gabe mantenduko dira) eta Sare Sozialetan egindako jarduerak urtero 3.600€koak dira (konstante proiektuaren bizitzan zehar).

Enpresak egin dituen kalkuluen arabera, app berriaren salmentak urtero gehitzea espero du. Era honetan, hurrengo 4 urteetan lortuko lituzketen urteko deskargen zenbatekoak honako hauek lirateke: Lehenengo urtea: 1.000 deskarga; Bigarren urtea: 2.000 deskarga; Hirugarren urtea: 4.000 deskarga; Laugarren urtea: 4.000 deskarga.

Indarrean dagoen zerga-tasa % 30 da eta finantzaketaren batez besteko kostua %6.

Erabilgarri dugun informazioa kontuan hartuta, honako galdera hauek erantzun:

- 1) Zein marketin-estrategiari jarraitzen dio Aplikation S.M. enpresak? Erantzuna arrazoitu.(0,15 puntu)
- 2) Zein konfigurazio motari jarraitzen dio Aplikation S.M. enpresak bere produktiorako? (0,15 puntu)
- 3) Zein da inbertsio-proiektu honentzako berreskuratze-epea? Zeintzuk dira balorazio-metodo honek dituen mugak? (0,15 puntu)
- 4) Zein da proiektu honetarako Balio Eguneratu Garbia (BEG)? Onargarria da? Erantzuna arrazoitu. (0,25 puntu)
- 5) Zein da proiektu honetarako Barne Errendimendu Tasa (BET)? (Kalkuluak egiteko erreferentzia gisa  $k_1=40\%$  eta  $k_2=45\%$  hartuko dira) Onargarria da? Erantzuna arrazoitu. (0,25 puntu)

Jo dezagun merkataritza-aholkulari batek Aplikation enpresak burututako kalkuluak zuzentzen dituela eta ekipo informatikoak proiektuaren 4 urteko epea behin igarota 4.800€gatik saldu daitezkeela uste duela.

- 6) Informazio berri honekin proiektuaren azken urteko Kutxa Fluxu Garbia kalkulatu ezazu.(0,15 puntu)
- 7) Zer nolako eragina izango luke informazio berri honek berreskuratze-epea eta BEGren kalkuluan? (0,15 puntu)

## INBERTSIO ARIKETA

Josu eta Ixone negozio berri bat aztertzen ari dira: furgoneta baten egindako txistorra-bokatak saltzea, leku desberdinetan eta mota askotakoak. Bokata mota bakoitza txakoli ezberdin batekin batera salduko da. Negozioaren bideragarritasuna aurreikusteko 5 urtetako epea kontsideratuko dute.

Furgoneta bat erosi beharko dute (kostua 29.750 euro) eta furgoneta hori egokitu beharko dute: sukaldea, salmahaia eta estalkia jarri (kostua 11.350 euro). Aktibo hauek guztiak 5 urtetan amortizatuko dituzte, linealki, hondar baliorik gabe.

Lehenengo urtean publizitate kanpaina intentsibo bat egingo dute (1.000 euro hiru hilez behin). Bigarren urtean publizitate gastua 500€ litzateke, hiru hilez behin, eta hurrengo hiru urteetan ez dute publizitate gasturik egingo.

Aurreikusitako kobrantzak eta ordainketak (publizitatea eta zergak izan ezik) ondorengo taulan agertzen dira:

Urtea	Kobrantzak	Ordainketak (publizitatea eta zergak izan ezik)
2014	26.500	21.150
2015	29.600	19.200
2016	37.200	17.000
2017	45.000	17.000
2018	45.000	17.000

Kapitalaren kostua ( $k$ ) % 4,5 da eta mozkinen gaineko zerga-tasa % 30

- 1) BEGa kalkulatu eta esan proiektua egingarria (bideragarria) den irizpide honen arabera. (0,25 puntu)
- 2) Pay-Back edo Berreskuratze Epea kalkulatu. (0,1 puntu)
- 3) Negozio berri bat izanik eta kontuan hartuz aurreko bi ataletan bi irizpide desberdin erabili ditugula, zein irizpide edo metodori lehentasuna emango zenioke erabakitzeke proiektu hau aurrera eramanez ala ez? Arrazoitu zure erantzuna. (0,2 puntu)
- 4) BETa kalkulatu eta esan proiektua egingarria (bideragarria) den metodo honen arabera. Kalkuluetarako ondorengo deskontu tasak erabil ditzakezu:  $k=16\%$  eta  $k=18\%$ . (0,25 puntu)
- 5) Azkenean, Josuk eta Ixonek pentsatuko balute azken urtearen amaieran furgoneta eta sukaldea saldu ahal izango lituzketela 6.500 eurotan, zein litzateke azken urteko kutxa fluxu garbia? (EZ HARTU INFORMAZIO HAU KONTUAN AURREKO 4 ATALAK KALKULATZEKO) (0,2 puntu)

## INBERTSIO ARIKETA

REALE S.A.ren zuzendaritza-taldea negozio-unitate berria irekitzeko aukera balioztatzen dago. Enpresaren hazkundea ekar lezakeen proiektu hau martxan jartzeko aholkularitza-enpresa batek honako proposamen hau aurkeztu dio:

- Hasierako ordainketa 30.000€tako izango litzateke eta 3 urteetan zehar bere osotasunean amortizatuta egongo litzateke.
- Proiektuak irauten duen bitartean honako aurreikusitako kobrantza eta ordainketa hauek sortuko lituzke:

	KOBRANTZAK	ORDAINKETAK
1. URTEA	68.000€	55.000€
2. URTEA	92.000€	70.000€
3. URTEA	126.000€	85.000€

- Proiektuaren balorazioa egiterakoan %6ko kapitalaren kostua (eguneratze-tasa) kontuan hartuko da eta enpresaren mozkinetara aplikaturiko zerga-tasa %30koa izango da.
- 1) Pay Back irizpidearen arabera, zein da aurreikusitako berreskuratze-epea?
  - 2) Balio Eguneratu Garbiaren (BEG) irizpidearen arabera, proiektua onargarria da?
  - 3) Barne Errendimendu Tasaren (BET) irizpidearen arabera, zein da proiektuaren aurreikusitako errentagarritasuna? Zure kalkuluetarako honako deskontu-tasak erabil itzazu:  $k=37\%$  eta  $k=40\%$ .
  - 4) Negozio-unitate berri honen ustiapenerako erositako aktiboak 3 urteen buruan 5.000€engatik saltzeko aukera balego, zein izango litzateke hirugarren urteko Kutxa Fluxu Garbia (KFG)?

## FINANTZA ARIKETA

Enpresa baten egoera balantzetik honako datu hauek lortu ditugu:

- Pasibo ez korrontea: 100.000 €
- Pasibo korrontea: 160.000 €
- Aktibo ez korrontea: 80.000 €
- Aktibo korrontea: 200.000 €

Bestalde, Batez besteko Heltze-Aro finantzarioa negatiboa dela dakigu, hain zuzen ere, 2 hilabetekoa.

- 1) Kalkula ezazu enpresaren epe luzerako kaudimen-ratioa eta emaitza interpretatu. Nolako hazkunde gaitasuna dauka enpresak?
- 2) Kalkula ezazu zorpetze-ratioa eta emaitza interpretatu.
- 3) Kalkula ezazu errotazio-funtsa (maniobra-funtsa) eta emaitza interpretatu.
- 4) Zer eragin dauka Batez besteko Heltze-Aro finantzarioa negatiboa izateak?

## FINANTZA ARIKETA

Akitxe S.M. enpresak bere egungo egoera finantzarioa aztertu nahi du eta 2013-2014 urte bitartean izandako bilakaera balioztatu.

Horretarako, honako datu hauek ditu eskura:

<b>AKTIBOA</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>
Lehengaiak	4.000€	3.200€
Bideango produktuak	16.000€	12.400€
Produktu bukatuak	32.000€	28.000€
Kapital Soziala	66.000€	66.000€
Garraio elementuak	12.000€	10.000€
Ordaindukoak	4.500€	3.800€
Bezeroak	24.000€	48.000€
Hornitzaileak	41.000€	28.000€
Diruzaintza	5.300€	7.400€
Erreserbak	22.000€	?
Epe lab. maileguak	?	36.000€
Finantza inbertsioak	9.000€	0
Epe luz. maileguak	16.500€	13.500€

Informazio hau kontuan izanik erantzun ondorengo galdera hauei:

- 1) Enpresaren finantza egoera aztertu 2014. ekitaldirako. Erabili klasean ikasitako ratioak.
- 2) 2013-2014 urte bitartean ratio horiek izandako bilakaera azaldu.